

Goi tentsioko linearen aurka



Nafarroako eta Gipuzkoako 166 udalerrri zeharkatu asmo dituen 120 kilometro luzeko goi tentsioko linearen kontrako protestak martxan dira Zerainen ere. Gure herria da autopista elektrikoak zeharkatuko lukeenetako bat, eta beste herri askotan bezala, legediak agindutakoa baino gertuago pasako litzateke herri-gunetik. Horrez gain, kableak babestutako natur-guneak ere zeharkatuko litzuzke. Proietuaren aurka Goierriin plataforma bat sortu da

eta bertan parte hartzen ari da Zerain ere. Protestako lehen ekintzetako bat, maiatzaren 17an izan zen; elkarretaratzea eta prentsa agerraldia egin ziren plazako artepean eta inguruko hainbat herritako jendea bildu zen bertan. Horrez gain, maiatzaren 27an, ibilaldia egin zen autopista elektrikoaren kontra eta Zeraindik ere pasa zen. Proiektuaren aurkako protestek eta ekintzek aurrerantzean ere jarraituko dute.



Ikasturte amaierako ekintzak

Kurtso amaiera gainean dugu eta urtero bezala, kurtsoa bukatu aurretik, lehenik Goierriko Eskola Txikien festa izaten dugu. Aurten maiatzaren 5ean ospatu genuen Itsasondon eta hurrengo urtean Olaberrin izango da. Aurten, Itsasondora joan aurretik Txoritegiko haitzera joan ginen, bertan argazkia atera genuen, horrela egun berean Gipuzkoako Eskola Txikiak dauden herrietako mendi tontorretan argazkiak atera genituen.

Ekainaren hasieran berriz, asteburu pasa joango gara Gipuzkoako kostaldera, Orio aldera, larunbata Zumaiako Flysh-ak ikusi, gaua Orioko albergean pasa eta hurrengo egunean Gipuzkoako Eskola Txikien festara joango gara Larraula.



Basarte Guraso Elkarte

Haitz Iturrioren lehenengo Jaunartzea



Haitz Iturriozek lehenengo Jaunartzea egin zuen maiatzaren 6an. Egund ederra pasa zuen familiarekin batera. Zorionak Haitz!

San Isidro eguna



Maiatzaren 19an, larunbata, San Isidro eguneko, base-rritarren eguneko (maiatzak 15), bazkaria giro bikainean egin zen Oiharten.

Sagardo dastatzea



Gazta eta sagardoaren mendia proiektuaren baitan, sagardo dastatzea egin zen Liztormendin ekainaren 1ean. Gerturatu ziren herritarrek sagardo ederrak edan zituzten.

Bolatako Gipuzkoako txapelak herrian geratu dira

Maiatzaren 27an Gipuzkoako Bola Txapelketa jokatu zen Liztormendi bolatokian, eta lau txapeletatik hiru herrian geratu ziren. Gizonezko helduetan Luis Aizpeoleak irabazi zuen (47 birla), emakumezkoetan Aitziber Makatzagak (45 birla) eta gazteetan Jokin Intxaustik (12 birla). Zorionak hiruroi!



Jaulki

Labur ibiliko naiz gaurkoan. Uste baino lehen joan zaigu, izan ere, hilabetea. Eskerrak Joxe Marik gogorarazi didan, *Xaguarteko* lankideak lantxoaren zain daudela. Banoa beraz gaiarekin. *Jaulki* aukeratu dute lagunek oraingo honetarako. Maldan behera doa hitza, itxuraz, Zerainen. Zaharrek badakite ondo asko, jaulki hitzak zer esan nahi duen. Gazteek eta gaztetxoek, aldiz, ez. Ondorio horretara iritsi dira, hitzen peskizan ibilitakoak. Hitza bera oso ezaguna da. Ondo dokumentatua dago euskararen historia ezagunean. Maiz erabili da ahoz eta idatziz, Bizkaian eta Gipuzkoan. Nafarroako zenbait eskualdetan ere bai: Ultzaman, esate baterako. Iparraldeko adibide zaharrik apenas dagoen, *jaldi* hitz-formaren kasuan izan ezik. Bistan dago, hala esango nuke behintzat, iturri beretik datozela bata eta bestea.

Zer informazio dago euskal liburuetan, *jaulki* hitzaz? Lasai egon gaitezke: oraingoan ez daukagu beste askotako eskasia mingarri hura. *OEH* hiztegia beterik dago *jaulki* hitzaren adibideez. Horien berri emango dugu lehen-lehenik. Lau adiera nagusi ditu hitz horrek hiztegian. Hona laurak:

1.- Gaztelaniaz "caer el fruto maduro. Caerse por el ímpetu del viento. Desgranarse o salirse de su envoltorio los granos de castaña, avellana, etc." Ikus dezagun zenbait adibide. Orixerenak ditugu biok: "*Jalki egiten da [sagarra], erori. Gari-aleak, babarrun-aleak ere alaxe jalkitzen dira galburu edo lekatik*". Mikel Atxagarena da, berriz, beste hau: "*Zu ere amaren sabeletik jalki egin zīñan*". Era figuratuan ere erabili izan da hitza, dotore asko erabili ere, inoiz edo behin. Larramendik hala esan zion Gandara zelakoari, orain dela 250 urte inguru: "*Beren hizkuntzak dituzte latiñetik jalkiak*". Mitxelenarena da, azkenik, beste esaldi hau: "*Mintzabeharra ere berekin zekarren, ordea, eta ez huts-hutsik besteri jaulkia jasotzekoa*".

2. Gaztelaniaz "desgranar a mano. Desgranar mazorcas de maíz, alubias, etc." Orain ehun urtekoa da, justu-justu, *Euskal Esnalean* idatzitako hau:

"*Illar lekak jalkitu*". Honelako asko erabilitakoa da Orixen, bai bizkaieraz eta bai gipuzkeraz: "*agindu bear deustak garau bat baño geiago ez dokala yaulkiko*", gaztelaniaz "no tomar cada vez más de una uva". *Yaulkitako* [galburua]. *Artajalkitzen aria duzu*". Bizkaia aldean (eta Gipuzkoako dot-esparruan, Debarroan, badu hitz honek beste adiera: *Jalgi* [...] echar una planta la simiente por sí sola. Ikusi, adibidez, Elexpuruk bildutakoa: "*bedar txarrak, sasoz ezpadie etarutzen, azixa jalgitzen dabe*".

3. Gaztelaniaz "escaparse algo (hablando); salir (de uno, palabras, dichos, etc.); confesarse autor de alguna fechoría, hablar con poca reflexión." Horrelakoak dira, adibidez, ondoko hauek. Batetik, har dezagun Tolosan jasotako hau: "*Itzak aisa jaulkiten zaizka orri; isilikako gauzak ezin esan lizaizkake: a ése le salen las palabras fácilmente*". Orixek beste hau esana du orain dela 80 bat urte, Santakruz apaizaz ari zela: "*ezer etzitekela jalki baserritarren abotik*".

4. Gaztelaniaz "contar, referir, narrar". Zarauzko Zinkunegi mediku zenak honela idatzi zuen: "*Nork jaulki duan galdetzea*" ¿Quién lo ha contado?". Lizardik idatzia da, berriz, esaldi labur bezain argia: "*Nik dakidan pixka yalki dezadan*". Txomin Agirrerrenak da, "*aitonak jaulkitako ipuñetara erne*". Zuberoako Mirande paristarrarena da ondoko hau: "*emeki eta zatika, historia guztia jaulki zion*". Aita Villasanterena da, aldiz, beste hau: "*emakume aietako batek, auxe jaulki zigun*".

Zer ondorio atera liteke hortik? Ondorio bat baino gehiago, seguru asko. Honako hau behintzat bai. Hitz hori ez da gizartearen aldakuntzagatik bakarrik galtzen ari. Askotan esaten dugu, galtzen ari diren hitzak gizarteberrikuntzaren errainu edo oihartzun direla: baserri-giroak berekin zituen tresnak, lanbideak eta harreman-tratuak galtzearekin batera, kontu horien berri ematen zuten hitzak ere gainbehera hasten direla eta, azkenik, galdu egiten direla. Kasu honetan, kontua ez da erabat horrela: hitzaren lehenengo bi adierak eskubide osoz sar litezke baserri-giroan eta, alde horretatik, ez da harriztekoa galtzen ari izatea. Baina

hurrengo bi adierak jeneralak dira, ez baserri-giroan bakarrik erabiltzekoak. Eta zergatik ari dira horiek ere galtzen?

Erantzuna, ezinbestean, etsia da. Kale-giroan bizi diren euskaldun gazte gehienek aski hitz-altxor mugatua dutelako euskaraz. Murrizketa hori emozioen, pertsona arteko harreman-tratuen eta pentsaera joriaren garapen-esparruan antzematen da berezki. Erraz antxean esaten dute gazteok *zuzendaria, ariketa, ordutegia, azterketa* edo *eskutitza*, eskolak horixe erakutsi baitie hamalau bat urtez. Arazo serioagoak dute, aldiz, euskararen hitz-altxor jatorretik eratorritako lexiko-garapen sendorik eragiteko. Ez da beraien "errua", bizi duten giroaren ezaugarria baizik. Egia da arazoa ez dela euskaraz bakarrik ageri: erdal telebista-kateen "bihotzeko programa" ezagunetan katigatzen diren gazteek ere nekez beren adierazbehar landuei aberastasan handirik erantsi ahal izago diete, bestelako makulurik gabe. Nahi duenak badu ordea, haien artean, garapen hori eragiteko erdal makulu ugari. Euskaraz gabiltza, aitzitik, aukeran justu, motx eta apal. Lau hitz berezi genituen lekuan hitz bakarrarekin konformatzen gara sarri. Horregatik esaten dugu hain erraz "haize epela atera du", "mobila patrikatik atera zaio nahi gabe", "karneta lehenengoan atera du", "ez daki kortxo ateratzen", "dirua gaur bertan atera nahi luke" eta, *jaulki* ordeaz, "irribarre gozoa atera zaio". Zertarako bizia konplikatu, *atera* horrekin guztia konpontzen badugu? Hala da, eta ez genioke jokabide horri muzin egin behar. Nahiago genuke askok *jaulki* moduko hitz jator, berezi eta emankor-oparoak galtzen ez ikusi, gazteen artean. Hori baino nahiago dugu gehienok, halere, "todoterreno"ko hitzez euskaraz ari den gazte-jende giharra, Zerainen zorionez bizirik dagoena. Ametsak ez du mugarik; *jaulkitako* eta *jaulki* gabeko errota-irina bai. Hala ikasi genuen Oriarrotan, hain aspaldi ez dela, bertako aitona-amonengandik.



Xagu-txoko



Babesetik

APIRILA	al	ar	az	og	or	lr	ig
							1
Euria (l/m)	GUZTIRA: 202 l.						0
C° altuena	ALTUENA: 21°						18
C° baxuena	BAXUENA: 4°						8
	2	3	4	5	6	7	8
Euria (l/m)	1	5	1	8	11	2	1
C° altuena	20	13	15	11	13	12	13
C° baxuena	9	10	8	8	8	6	8
	9	10	11	12	13	14	15
Euria (l/m)	1	6	0	8	5	18	23
C° altuena	21	16	15	13	10	9	8
C° baxuena	8	11	6	10	6	7	4
	16	17	18	19	20	21	22
Euria (l/m)	1	1	12	15	2	7	0
C° altuena	8	17	13	11	15	17	13
C° baxuena	5	5	5	6	7	8	9
	23	24	25	26	27	28	29
Euria (l/m)	15	1	15	1	14	17	3
C° altuena	20	15	20	18	21	11	18
C° baxuena	8	6	8	8	9	8	6
	30						
Euria (l/m)	8						
C° altuena	16						
C° baxuena	8						

Apirilean euria erruz egin du

Martxoan izandako eguraldiari begira jarrita, udaberria aurreratuta iritsi zela esan genuen orain dela hilabete. Martxoan epeletik eta nahiko lehorretik joan zen. Apirila, ordea, justu kontrakoa izan dugu: 30 egunean bi baino ez euri tantarik gabekoak. Eta hotz handirik egin ez duen arren, 15 gradutik pasa gabeko 18 egun izan ditugu. Jendea baratzeko eta soroko lanak egiteko ataruneak ezin aurkituta ibili da. Dena den, hilabete guztian zehar egindako 200 litro pasatxo horiek geroko uztarentzat eta gure paraje berdeentzat parerik gabeko altxorra dira.



Ingalaterrako "baserritarrak" bisitan



Maiatzaren 14an, Ingalaterrako "baserritar" talde bat Zerain bisitatzeko izan genuen. Basazabalgo gaztandegia eta Oiharteko sagardotegia bisitatu zituzten. Eta umore eta interes ezin hobearrekin, egun ederra igaro zuten.

Herriko bake epailea aukeratzeko deialdia

Datozen lau urteetarako herriko bake epailea aukeratzeko deialdia egin du Udalak. 18 urte beteta edukitzeaz gain, beste hainbat baldintza bete behar dira: euskalduna izatea, doluzko delituen-gatik auziperatua ez izatea, kargu sindikal edo politikorik ez edukitzea, funtzionarioa ez izatea (irakaslea salbu), etab. Interesatuak ekainaren 13 arteko epea dute izena emateko.

Uraren kontadore zahar- rrak aldatzen ari dira

Zeraingo hainbat ur-kontagailu aldatzen ari dira maiatzaren amaieraz geroztik. Gipuzkoako Urak 2012ko lehen irakurketan matxuratuta edo zahartuta ikusi dituen kontagailuak aldatzen ari da. Herritarrei jakinarazi nahi die aldaketa hauen kostua ez zaie-la kobratuko. Edozein zalantza argitze-ko: 902302222 telefonora dei daiteke.

Herri-bilera: ekainak 16

Ekainaren 16an, larunbata, herri-bilera egingo da udaletxean goizeko 11etan. Honako hauek dira gaiak: komisiota-ko informazioa, parte-hartzearen balorazioa eta aurreantzean nola jarraitu eta beste gai batzuk. Udalak dei egiten die herritarrei bertan parte hartzera.

XaguArtearen oharra

Hainbat arazotxo tarteko, maiatzean argitaratu beharreko XaguArtearen ale hau atzeratu egin zaigu. Espero dugu ekaineko aletik aurrera normaltasunez aritu ahal izatea.